



Oiartzungo Udalaren asmoa da udalerrian obra txikiak alde zuzeneko jakinarazpenaren bidez arautzeko ordenantza onartzea.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran duten parte-hartzea hobetzeko, arautegi-proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, hala uste badute, 2024ko abenduaren 31a arte helaraz ditzakete galdetegi honetan planteatutako alderdiei buruzko iritziak, helbide elektroniko honen bidez: [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus), edo Udaleko Erregistro Orokorrean (Done Eztebe plaza, 1).

Ekimen horiek aztertu eta kontuan hartuko dira, hala badagokio.

#### **Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:**

Udal espedienteen kudeaketa aplikazioaren azterketatik herritarren obra baimenen artean obra txikien kopurua handia dela, ondoko datuak erakusten duten bezala:

2022an.- 150

2023an.- 171

2024ean.- 129 (+17 fotoboltaikoa)

Eskaeren bolumenak hirigintzako udal zerbitzuarengan suposatzen duen lan karga ikusirik, obra txikien tramitazioa arintzeko beharra ikusten da eta, legez aurreikusita dagoen moduan, administrazio-izapidetza sinplifikatzen duen aurretiazko jakinarazpen-sistema bat egituratu eta arautzea izan liteke konponbidea.

#### **Onartzeko beharra eta egokitasuna:**

Udalerriko eraikuntza-jardunaren bolumena eta ezaugarriak ikusita, udalak eraikuntza-ordenantzan obraren komunikazio-araubidearen erregulazioa sartzeko garaia iritsi dela uste du, baldin eta aipatu obrak ez badute eraginik ez egituran, ez kanpoko elementuetan, ez lizentzia behar duten barnealdeetan 2/2006 Legearen 207. artikularen eta Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hirigintza-araudi orokorraren 104. artikularen arabera.

Modu horretan, proiektu teknikoa aurkeztea beharrezkoa ez den garrantzi tekniko txikiko obrak, beti ere ordenantzak berak aurreikusten dituen kasuetan aurkitzen ez badira, hau da, antolamenduz kanpoko eraikinetan egindako obrak, udalerriko ondare kultural edo historiko-artistikoaren zati direlako babestu beharrezkoak direnak edo zuzeneko egitura duten eraikinetan barruko espazioen banaketak aldatzeko helburu dutenak.

#### **Arauaren helburuak:**

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 207.5 artikuluan aurreikusitakoaren esparruan, administrazio-izapidetza sinplifikatzen duen aurretiazko jakinarazpen-sistema bat egituratzen da, baldin eta proiektu teknikoa aurkeztea beharrezkoa ez den garrantzi tekniko txikiko obrak eta ordenantzetan aurreikusitako beste jarduketak batzuk egin behar badira.



OIARTZUNGO  
UDALA

**Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik**

Aztergai dugun gaia ordenantzaren bidez arautu behar da, hain zuzen ere, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 207.5 artikulua horrela jasotzen duelako espresuki.